Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

IVAF·EIEI
Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua
Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros en la Formación Profesional

LAN ESPERIENTZIA ETA IKASKETA EZ FORMALAK ONESTEKO ETA ZIURTATZEKO

GIDA

Lan esperientzia izan arren, ez duzu hori egiaztatzen duen agiririk?

ZURE ESPERIENTZIA ZURE TITULUA DA!

Zure gaitasun profesionalean ziurtatze ofiziala lortu, bai lan esperientzia bitartez bai egindako prestakuntza ez ofizialen bitartez.

© IVAF, 2024

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Gobierno de España · Ministerio de Educación y Formación Profesional · Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco

IZEN-EMATEA ETENGABE IREKITA

Zure gaitasun profesionalak ziurtagiri ofizial bidez ziurtatzeko prozedura hau jartzen dugu zure eskura. Nola?

Lortu dituzun gaitasun profesionalen frogak ekarrita. Hori da dena.

ZERTARAKO BALIO DU?

Lanbide Heziketako titulua edo Profesionaltasun Ziurtagiria eskuratzeko, lanean bazaude, eta baita langabezian bazaude ere. Zure prestakuntza hobetzen lagunduko dizugu heziketa plan pertsonalizatu baten bitartez. Eta, gainera, nahi adina alditan eman ahal izango duzu izena.

INFORMAZIO GEHIAGO

Informa zaitez Lanbide Heziketako Ikastetxeetan

www.ivac-eei.eus
peac-euskadi@ivac-eei.eus

ABANTAILAK

ZURETZAT

- Ziurtagiri ofiziala lortuko duzu eta, hari esker, baldintzak beteta, LH titulua edo Profesionaltasun Ziurtagiria eskuratuko duzu.
- Zure lanposturako eskatzen diren gaitasunak egiaztatzen lagunduko dizu.
- Araututako lanbideak eta agiri profesionalak atzitu ahal izango duzu (arreta sozio-sanitarioa, Instalazioak, arrantza...)
- Lana aurkitzeko eta/edo egungoa hobetzeko aukera gehiago izango duzu.
- Lanean mugikortasuna erraztuko dizu, bai estatu mailan bai Europa mailan.
- Banako prestakuntza plan bat izango duzu, prestatzen jarraitzeko.
- Izapide erraza da.

ENPRESENTZAT

- Zure langileen kualifikazioak onesten ditu.
- Banakako prestakuntza plana ematen die nahi duzun kualifikazioa jasotzeko.
- Langileen kualifikazioa areagotzen du.
- Zure langileen garapenerako planak bultzatzen ditu.
- Gainera, zure beharrei eta lan erritmoei egokitutako plan espezifikoak eskaini ahal dizkizugu.

Parte har dezaket nik?

- Europar hiritartasuna edo egoiliarren baimena.
- 18 urte 1. mailako kualifikazioentzat.
- 20 urte 2. eta 3. mailako kualifikazioentzat.
- Lan esperientzia ( ) eta/edo prestakuntza ez formala. ( )

Eta orain zer?

Onartu zaitugun ala ez jakinaraziko dizugu, eta baita erreklamatzeko epea ere.

IZEN-EMATEA

Zein dokumentu behar dut?

- Izen-emateko eskakizuna, IV ERANSKINA, gure webgunean eskuragarri. ( )
- Udal erroldako ziurtagiria.
- NANren, AIZ edo baliokidea.
- Lan esperientziaren frogagiria ( ) eta/edo prestakuntza ez formalaren frogagiria.
- Historia Profesionala eta Prestakuntzakoa, gure web orrian eskuragarri. ( )

Non eman behar dut izena?

- Baimendutako LH-ko ikastetxeak.
- LANBIDEko bulegoak.
- Informazio eta Orientazio Zerbitzurako baimendutako entitateak.

Webgunea: www.ivac-eei.eus.

Lan esperientzia: 3 urte, gutxienez 2.000 orduko lanarekin gutxienez azken 15 urteetan (2 urte eta 1.200 ordu 1. mailako konpetentzia-unitateentzat).

Prestakuntza: 300 ordu azken 10 urteetan (200 ordu 1. Mailako Konpetentzia Unitateentzat) ziurtatu nahi duzun Konpetentzia Unitateetan.

Frogagiriak: Enpresaren ziurtagiria, webguneko eredu ofizialaren arabera, eta lan-bizitzaren Ziurtagiria.

Zure arlo profesionalean aditua den pertsona batek lagunduko dizu eta ibilbide osoan zehar orientatuko dizu.

Elkarrizketa ( ) profesionala egiteko hitzordua emango dizu, zure Konpetentzia Unitateak behar bezala froga ditzakezula egiaztatzeko eta zure Historia Profesional eta Heziketakoa osatzeko.



AHOLKULARITZA

Txostena eta Heziketa Plana

- Txosten bat emango dizugu, Ebaluazio fasean zein Konpetentzia Unitatetan matrikulatzeko gomendioekin. Eta, gainera, Heziketa Plan bat emango dizugu ( ) frogatzerik izan ez dugun Konpetentzia Unitateentzat.
- Zuk erabakiko duzu zein Konpetentzia Unitatetan eman izena Ebaluazio fasean, zure aholkularitza-txostena edozein dela ere.

Heziketa Plana: Prozedurarekin jarraitzen ez baduzu bakarrik.

Elkarrizketa: Hitzartutako elkarrizketa profesionalera agertzen ez denak, arrazoirik gabe, prozeduran jarraitzeko eskubidea galduko du.

EBALUAZIOA

Ebaluazio Batzordea

Adituen batzorde batek zure konpetentzien Txostena eta aholkularitza txostena aztertuko ditu eta, aurkeztutako frogagiriren bat nahikoa ez bada, Batzordeak konpetentzia hori egiaztatzeko probak egitea proposatu ahal izango du.

Eta orain zer?

Behin prozedura gaindituta, hainbat aukera dituzu

Ebazpena

Emaitza jakinaraziko dizugu eta Ziurtagiri Ofiziala nola lortu adieraziko dizugu. (✪)

Gainera, behar izanez gero, erreklamazioa aurkezteko bidea eta epea adieraziko dizugu.

Heziketa Plana

Horrez gain, Heziketa Plan bat ere jasoko duzu, egiaztatu gabeko unitateak ziurtatzea lor dezazun eta Profesionaltasun Ziurtagiria edo Lanbide Heziketako Titulua lor dezazun.

Lanbide Heziketako Tituluak *

Lanbide Heziketako Titulu baten Konpetentzia Unitate guztien ziurtagiri ofiziala lortuz gero, eta sartzeko betekizun guztiak betetzen badituzu.

1. Egin matrikula LHko ikastetxe batean.
2. Eskatu moduluak indarrean den araudiaren arabera baliozkotzea.
3. Egin baliozkotu gabeko moduluen ikasketak.
4. Titulua ematea eskatu.

Ziurtagiri profesionala *

Profesionaltasun Ziurtagiri baten barruko Konpetentzia Unitate guztien ziurtagiri ofiziala edo Ziurtagiri Profesional bateko modulu guztiak lortzen badituzu, dagokion Ziurtagiria (☆) bidaltzea eska dezakezu.

Konpetentzia ziurtagiria

Modulu bati dagozkion konpetentzia unitate guztiak egiaztatzen badituzu.

Konpetentziaren ziurtatze partziala

Lanbide Heziketako titulu bakoitzeko modulu profesionaletan biltzen diren ikasketen emaitza bat bakarra edo batzuk bakarrik egiaztatzea lortzen baduzu.

✪ **Ziurtagiri ofiziala:** ikasgunea.euskadi.eus webgunetik deskarga dezakezu.

* Araudiak ezartzen dituen baldintzak beteaz.

☆ Profesionaltasun Ziurtagiria edo Ziurtagiri Profesionala.